

azpeitianzer?

udal aldizkaria

156. zenbakia
2013ko maiatza

2013ko aurrekontuak

Azpeitiko Udalak aurtengo diru-kontuak onartu ditu eta herriko ekonomia suspertzeko neurri bereziak hartu ditu lehenbizikoz



ale honetan zer?

3 Agenda

4 Aurrekontuak

6 Ekonomia

8 Elkarriketa

10 Denon Artean 2013

12 Arloak

13 Inbertsioak

16 Asteburu Musikalak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Maiatzaren 9, 13, 18, 19 eta 28.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Maiatzaren 2, 14, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 31.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Maiatzaren 3, 8, 15 eta 27.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Maiatzaren 6, 11, 12, 17 eta 29.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Maiatzaren 1, 4, 5, 7, 10, 16 eta 30.

agenda



Maiatza

4, larunbata

AZPEITIKO RALLYSPRINTA
Egiazta penak: 10:00-12:00
Irteera: 15:00
Tokia: Euskalerrria

ASTEBURU MUSIKALA
REGGAE GAUA
Lekua: Sanagustin Kulturgunea
Ordua: 23:00

5, igandea

XLII. URRAKI IGOERA
Ordua: 10:00etan
Irteera: Plaza Nagusian

10, ostirala

SAN ISIDRO JAIK ARATZ ERREKAN
19:30 Txupinazoa
20:00 POTEAO
21:00 AFARIA
03:00 BARATZURI ZOPA jana

11, larunbata

ASTEBURU MUSIKALA
UDAL MUSIKA BANDA
Lekua: Sanagustin Kulturgunean
Ordua: 19:30

SAN ISIDRO JAIK ARATZ ERREKAN
09:30 SUZIRIAK
10:00 MENDI BUELTA
18:00 SAN ISIDROTAKO FERIA
20:00 PINTXO-POTEAO
21:00 AFARIA Iñigo Galdos
eta Ainara soinu joleekin
22:30 Gaitze eta DJ. REFEREE
01:00 LEHIAKETA XELEBREA

15, asteazkena

SAN ISIDROAK ARATZ ERREKAN
09:00 SUZIRIAK
12:00 MEZA NAGUSIA
14:30 BAZKARIA
20:30 MAMI JANA Aritz Garmendia eta
Txibiltar soinu joleak

18, larunbata

ELKARTASUNA EGUNA
11:30 Elkartasun Krosa
13:00 Herri kirolak
14:30 Bazkaria
Umeen gunea
18:30 Manifestazioa
19:30 Skandalau Elektrotxaranga
23:00 Kontzertuak Plaza Nagusian

19, igandea

TXALINTXO EGUNA
12:00etan Meza nagusia
Salda, hamaiketako, musika eta jolasak

21, asteartea

MENDI ASTEA proiektzio emanaldia:
"BEAUFORT GAZTA,
MENDIA ETA ESKIAREN
ESENTZIA PIERRA MENTAN"
Ordua: 21:00
Lekua: Lagun Onak M.Beko aretoa

22, asteazkena

MENDI ASTEA proiektzio emanaldia:
"DESAFIO GLACIAR"
Ordua: 21:00
Lekua: Lagun Onak M.B.eko aretoa

23, osteguna

MENDI ASTEA proiektzio emanaldia:
"KANADAKO ZIRKO ESKALAEZINAK,
LOTUS FLOWER TOWER"
Ordua: 21:00
Lekua: Lagun Onak M.B.eko aretoa

25, larunbata

XANJUANDEGIKO JAIK
Ume eguna 11:00etatik 17:00etara
ASTEBURU MUSIKALA
BANDA GAZTEA ETA MUSIKA
ESKOLAKO TXISTULARIAK
Lekua: Sanagustin Kulturgunea
Ordua: 19:00

LAGUN ONAK M.B. EGUNA:

10:00etarik 13:00etara eskalada praktikak
16:30ean, gazteen argazkien emanaldia

26, igandea

ASTEBURU MUSIKALA
BANDA GAZTEA
Lekua: Nuarbe Auzoa
Ordua: 13:00

XOXOTEKO EGUNA
Irteera 9:00 Plaza Nagusitik
12:00etan meza eta lore eskaintza
Domina banaketa
Egun guztian zehar trikitilari eta
bertsolariak eta umeentzako jolasak

28, asteartea

XANJUANDEGIKO JAIK
22:00 Monologoa Izaro tabernan

29, asteazkena

XANJUANDEGIKO JAIK
20:30 Bertso afaria Baigera II-an Beñat
Lizaso eta Agin Rezola bertsolariekin

30, osteguna

XANJUANDEGIKO JAIK
Mus txapelketa Ongi Etorri erretegi
Mozorro gaua eta karaokea
Jim Clark tabernan

31, ostirala

XANJUANDEGIKO JAIK
"GAZTE EGUNA"
18:30 Auzoko lokalaren irekiera eta luntxa
19:30 Amona mantangorriren jeitsiera
haurren koreografiarekin lagunduta
19:35 Erraldoi eta buruhandiak, Juan de
Antxieta musika eskolako ikasleekin
21:00 Gazte afaria
23:00 Saloiko dantzak Jose
Mari Orbegozorekin
Kontzertuak karpan: Kasik,
Ezinean eta Laket
Goizaldean batzuiopajana
Barruko erropen karrera



Azpeitiko ekonomia sustatzeko helburua duten aurrekontuak osatu ditu Udalak

16.304.180 euroko aurrekontua izango du Udalak 2013 urtean zehar

martxoaren 21ean egindako ez-ohiko Udalbatzak 16.304.180 euroko aurrekontua onartu zuen 2013 urterako. Aurtengo aurrekontuak Bildu eta Hamaikabat taldeen aldeko bozkekin onartu ziren, EAJ alderdia, aldiz, abstenitu egin zen. “Prozesua denon aldetik ondo joan arren, beti dago zer hobetu. Hasieratik 5 irizpide jarri genituen mahai gainean, hoiiek adostu eta horren gainean osatu ditugu aurrekontuak. Uste dugu, sektore publikoak arriskatu beharra duela motor ekonomikoa izateko. Sektore pribatua ahul dago eta guk, arriskatuz, herrian inbertitu eta ekonomia mugituarazi behar dugu, gure neurri apalean”, adierazi du alkateak.

“Egun, sektore publikoak arriskatu beharra du motor ekonomikoa izateko”

Aurrekontuak osatzeko erabili diren irizpide nagusiak honako hauek izan dira:

- Azpeitiko sustapen ekonomikoarentzat Plana 2013.
- Gizarte zerbitzuak indartzea.
- Auzoetako beharrei erantzun, bereziki alde-zaharra.
- Udaleko baliabideen optimazioarekin jarraitu.
- Bolondres lanean ari diren taldeei dirulaguntzak ez murriztu.

Aurrekontuetatik, 1.797.500 euro inbertsioetarako bideratuko ditu Udalak. Inbertsioetan, proiektu garrantzitsuenak hauek izango dira:

- Foru Ibilbideko astotegi eremua oinezkotu eta espaloia zabaltu
- Soreasu auzoko irisgarritasuna hobetzeko 2. fasea
- Olazko Amaren plazako peatonalizazioa
- Urrestilako plaza oinezkotzea
- Done Jakue kaleko parkea eraberritu 6-12 urte bitarteko umeentzat eta pelotalekutik alberga bitarteko gunea oinezkotu
- Alde Zaharrean pibote sistema ezarri

AZPEITIKO UDALEKO 2013ko AURREKONTUAK

1. AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZARENA

AURREKONTU OROKORRA	17.502.851,33 euro
UDALA (aurrekontu propioa)	16.304.180,33 euro
EUSKARA PATRONATUA	602.627,75 euro
KIROL PATRONATUA	1.094.266,28 euro
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	368.321,00 euro

2. UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENDUKA

Ogasuna eta Kontuak	1.046.532,49 euro
Hirigintza eta Ingurumena	1.433.800,00 euro
Hezkuntza eta Euskara	836.821,06euro
Kultura eta Gazteria	770.800,00 euro
Kirolak	798.326,17 euro
Gizarte Zerbitzuak	1.123.120,00 euro
Langileria eta antolakuntza	5.260.986,00 euro
Festak	498.000,00 euro
Zerbitzu orokorrak	3.094.050,00 euro
Alkatetza	241.000,00 euro
Industria, Merkataritza, Turismoa eta Baserriak	536.654,50 euro
Parekidetasuna	96.500,00 euro
Baserriak	285.000,00 euro
GUZTIRA	16.304.180,33 euro

3. 2011ko AURREKONTUEKIN ALDERATUZ

	2012	2013
UDALA (aurrekontu propioa)	16.563.950,36 euro	16.304.180,33 euro
EUSKARA PATRONATUA	585.929,03 euro	602.627,75 euro
KIROL PATRONATUA	1.107.126,17 euro	1.094.266,28 euro
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	388.000,00 euro	368.321,00 euro
AURREKONTU OROKORRA	17.715.250,26 euro	17.502.851,33 euro



Ekonomia suspertzea da helburu nagusia, eskualdeko ikuspegitik

Udalak 700.000 euro bideratu ditu lehenbizikoz gai horretara

azpeitiko egoera ekonomikoa kinka larrian dago eta Udal ordezkariak horren jakitun dira. Azpeitiarrak krisiaren eraginak sufritzen ari dira eta herritar hauek Udalaren guztizko lehentasuna direla argi utzi nahi dute ordezkariak: “Bereziki aipatu nahi dira lanik ezin aurkituta dabilzan azpeitiarrak, eta noski, beren lanpostuak galdu dituzten herritar guztiak. Une latzak dira eta herritarrekin egotea tokatzen zaigu, eta Udala ere esfortzu guztiak egiten ari da zentzu horretan”.

Modu honetan, Udala ahalegin guztiak egiten ari da egoerari itzulia emateko eta horrela, lehenengo aldiz, aurrekontuetan 700.000 euroko partida ezarri da

“Sektore guztietan lanketa egin beharko dugu, industrian bereziki”

ekonomia suspertzeko: “Diru hori gero nola banatzen dugun eta zertan erabili denon artean erabaki beharko dugu. Hala ere, sektore guztietan lanketa egin beharko dugu, industrian bereziki, eta merkataritza, turismoa eta nekazaritza”, azaldu du alkateak.

Neurri zehatzak onartuko dira eta gainera, neurri horiek 2013ko tasen hobarietan lotuko dira, ekonomia sustatzeko hainbat erabaki onartu baitziren.

Sustapen Planaren ildo nagusiak ondorengoak dira:

- Ekintzailetasuna sustatzea
- Langabetuak kontratatze laguntzak
- Formazioaren aldeko apustua
- Enpresak sortzeko dirulaguntzak

Ildo horretatik, Urola Erdiko gainontzeko herriei batera, eta Lanbidek finantziatuta, Enplegu Plana abian jarri zen. Eskualdeko egoeraren diagnostikoa egin ondoren, estrategia eta ekintza zehatzak aurkeztu ziren. Planak dagoeneko eman ditu fruituak, izan ere, lau ikastaro antolatu dira.

azpeitia | plan 2025 | estrategikoa

Epe luzeko asmoei dagokienez, norabidea zehazten hasi dira Udal ordezkariak, Azpeitia 2015 Plan Estrategikoa proiektuaren bidez. Udala osatzen duten hiru alderdi politikoak ados jarri dira etorkizuneko Azpeitia diseinatzeko, eta proiektu horretan, herritarrak eta eragile eta taldeak bidelagun izango dituzte.

Azpeitia 2025 estrategia prozesuaren ildo nagusiak ondorengoak dira:

- Diagnostikoa egin. Diagnostiko batetik abiatuko da herria nola dagoen jakiteko eta abiapuntua zehazteko.
- Estrategiak definitu. Etorkizunean Azpeitiak dituen erronkak zehaztu eta martxan jarri beharreko estrategiak planteatuko dira.
- Ekintzak. Estrategia helburu zehatz eta ekintza konkretuetan gauzatuko dira, etorkizuneko Azpeitia irabazteko.

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa uztaleko hilean Udalbatzan onartuta egotea espero da.



Herritar eta eragileekin egindako bilera.



Denon Artean prozesuko azken bilera.

Azpeitia Denon Artean prozesu parte-hartzailea sendotu eta indartzea lortu da aurten

Guztira 634 herritarrek hartu dute parte aurrekontuen osaketan

2013ko Denon Artean prozesuaren diseinuan hainbat berrikuntza barnebildu ziren. Prozesu parte-hartzaile integrala osatu nahian, udal ordezkari eta herritarrez gain, udal langileen parte hartzea ere sustatu da oraingoan.

Bestalde, herritarren parte hartzea gehiago bultzatu nahian, batzarretatik haratago, galdetegiak ere baliatu dira iritzi eta ekarpenak biltzeko. Honela, asko izan dira galdetegi eta buzoien sistema baliatuz euren iritzia eman nahi izan dutenak. Aipatzekoa da, zenbait kasutan

galdetegi bera erabili dutela batzarrera ezin izan zutela azaldu adierazteko.

“Batzarretan parte hartu duten herritarrek oso modu positiboan baloratu dituzte prozesuan baitan egindako batzarrak”

“Gauzak honela, prozesu parte-hartzailea modu integralean lantzeko hartutako erabakia, egokia izan dela ondorioztatu dezakegu. Parte hartzea langileei irekitzeak, sendotasuna eman

dio prozesuari. Herritarrei baliabide gehiago eskaintzeak, ekarpen gehiago biltzeko parada eskaini digu”, agertu dute Udal ordezkariak.

Azkenik, batzarretan parte hartu duten herritarrek oso modu positiboan baloratu dituzte batzarrak, ehuneko ia ehunak, Udalak batzarrean garrantasunez jokatu duela aipatu du. Parte hartzeak duen garrantzia baloratzeko aukera eskainita, puntuazio handia eman diote herritarrek. Beraz, 2012an abian jarritako lehen esperientzia pilotua, sendotu eta indartu dela esan daiteke.

Parte hartzailearen perfila:

Prozesuak, sentsibiltate eta ikuspegi desberdinak dituzten herritarrak biltzeko gaitasuna erakutsi du. Parte hartzaileen gehiengoak pertsona helduek osatu dute, 30 urte baino gutxiagoko gazteek oro har ez dute parte hartu prozesuan. Genero ikuspegiari lotuta, aipatzekoa da emakume eta gizonen parte hartzea parekoa izan dela.

Arloetako batzarretan, gaiarekiko sentsibiltatea duten herritarrak egon badira ere, herriko talde desberdinetako ordezkariak izan dira protagonismo handiena izan dutenak.

2012ko balantzea:

Prozesuan parte hartu duten herritarrek gehiengoak ongi baloratu du, orokorrean udalak 2012an egindako lana. Batzuek oso ondo ikusi duten bitartean beste batzuek nahikoa izan dela iritzi diote. Udalak norbere auzo edota arlora begira egindako lana baloratzekoan, balorazioak behera egiten duela ikusi da. Gehiengoak, egindako kudeaketa ontzat edo nahikotzat ematen badu ere, gutxiegi egin dela deritzotenak ere agertu dira.

2013rako lehentasunak:

Prozesuaren baitan Udalak aurkeztutako norabide orokor-
rarekin bat egin dute herritarrek, jarritako lehentasunak, aurrekontuetarako irizpideak ez dira eztabaida edota kezka iturri izan. Parte-hartzaileen ustez arlo garrantzitsuenak gi-
zarte zerbitzuak eta ekonomia direla ikusi da nabarmen. Aipatu bi sail hauen atzetik, hezkuntza, hirigintza eta inguru-
mena agertzen dira gai garrantzitsuenetan.

Auzoak:

Herritarrak jakin badakite ez dela, hirigintzako obra handiak egiteko momentua. Dena den, 2012 aurrekontuetan aurreikusi ziren auzoetako obrei jarraipena egin zaie eta Udalak lehenbailehen gauzatu distan eskatu da.

Kanpoko auzoetan, auzo alkate eta auzo batzordearen lanari esker, Udala eta auzoaren arteko harremanak sendotu izana oso modu positiboan baloratu da. Egindako bideak, izan du eraginik parte hartzean eta 2013rako zenbait proiektu auzolanean egiteko borondatea ere agertu dute auzotarrek.

Bestalde, gunen irristakorrak, egoera kaxkarrean dauden barandilak, argiztapen hobetzeko beharra duten gunek... Mantenua eta garbitasunari lotutako ekarpen ugari jaso da.

Arloak:

Arloetako batzarretan, herriko eragile desberdinek erakutsitako lanerako borondatea eta prestutasuna izan daiteke akaso, balorerik garrantzitsuenak. Arloz arlo, jarritako norabidean sakondu eta urrats berriak planteatu dira. Beti ere, Udala eta eragileen arteko harremanak sendotu eta elkarlanari bide emateko borondatearekin.



DATUAK

GALDETEGIEN BITARTEZ 81 HERRITAR

HERRIKO AUZOAK 296 HERRITAR

ARLOAK 243 HERRITAR

INTERNET 4 HERRITAR

GUZTIRA 634 HERRITAR

elkarritzeta

Eneko Etxeberria [Alkatea](#)

“Azpeitiak daukan arazo nagusia da langabezia, gure lan eta esfortzu guztiak zor dizkiogu”



“Herriarrek sinesten dugu amaiera arte. Azpeitian, edozein gai dela, hondakinen gaian ere bai, 2.500 herriarrek eskatzen badute herri-galdeketa ospatuko da. Horrela, erabaki genuen Udalbatzan guk proposatutako parte-hartze ordenantzan”.

2013ko aurrekontuak onartu ditu Azpeitiko Udalak. Zer balorazio egiten duzu prozesuaren inguruan?

Hasieratik oso ondo joan da prozesua. Hala ere, beti dago zer hobetu. Hasiera-hasieratik bost irizpide nagusi (ekonomia suspertzeko plana, udal baliabideen optimizazioa, gizarte politikak indartzea, auzoetako beharrei erantzuteko inbertsioak eta ingurumen kalitatea hobetu eta iraunkortasuna sustatzeko politika berriak egitea) jarri genituen mahai ganean, horiek adostu eta horren ganean osatu ditugu aurrekontuak. Kopuruari dagokionez, 16.304.180 euro, iazkoa baina gutxiago den arren, oso aurrekontu onak osatu dira, beti ere, gaur egun bizi dugun egoera larriari erantzuteko sustapen ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak nabarmen indartuz.

Lan galerak, enpresa itxierak, EREak... dira azpeitiarren artean gehien entzuten diren hitzak.

Azpeitiak daukan arazo nagusia da langabezia. Eta honi zor dizkiogu gure lan eta esfortzu guztiak, denak. Beste gai guztiak, nire ustetan, atzetik datoz. Alarma gorri guztiak piztuta daude, hau da, gutzizko lehentasuna.

Lan mundua Udalaren kezka nagusienetakoa dela argi utzi duzue, zuen elkartasuna adieraziz lan egoera zailetatik igarotzen ari direnei.

Herrian jende asko ari da egoera gogorra bizitzen: kaleratu asko daude, enpresa asko itxi dituzte, merkataria, autonomo pila batek galdu du lana. Horregatik, kezka azaldu du Udal Gobernu honek, eta gure elkartasuna adierazi nahi izan diegu

krisiaren eragina sufritzen ari direnei, orokorrean. Guretzat lehentasun guztia du krisi ekonomikoari aurre egiteak. Gehien bat, Corrugadosen inguruan asko ari da hitz egiten herria, egia da beldurtzeko eragina duela herrian baina horrek ez du esan nahi instituzioak eta Udalak enpresa handiez bakarrik kezkatzen garenik. Denek merezi dute gure esfortzua.

Langabeziarekin amaitzeko hainbat pauso eman ditu Udalak, besteak beste, lehenbizikoz Azpeitiko historian, 700.000 euroko partida bideratu da aurtun. Zein izan da asmo nagusia?

Koherentziaz ekonomia suspertzera diru kopuru handia jarri beharra genuen. Herri mailako plana izango da, eta hiru zutabe zuzen izango ditu:



formazioa eskaintzea, diru-laguntzak ekintzailetasunari eta langabetuak kontratatzeari. Baina, udaletxearen aldaketa sakon baten bidea da, dena jarri behar dugu honi begira. Lokalak baditugu eskaini, inkubadorak sortu, elkarlana sakondu eragileekin, lanpostu publikoak sortu, gizarte zerbitzuak garapenean oinarritu. Hori da gure plana. Azpeitiko ekonomia batez ere eraikuntzan oinarrituta zegoen (altzaritza, eraikuntza dedikatzen direnak, eta altzairutegia bera, nagusiki). Etorkizuna irabazteko epe luzeko apustuak egin behar ditugu, eta aldaketaren zutabeak jarri behar ditugu. Eta, noski, beste instituzioen esfortzua behar dugu, eta horrela eskatzen ari gataizkie etengabe. Udalarentzat esfortzu handia da eta beste instituzioek, eskumenak beraienak izanda gainera, gure esfortzu antzekoa egin behar dute.

Zeintzuk izango lirateke aldaketaren zutabe horiek?

Horiek adosteko plan estrategiko bat prestatzen ari da Udala. Baina nik uste zutabe hauek ezartzean ez dagoela tresna magikorik: ekintzailetasuna, dibertsifikazioa, berrikuntza, nazioartekotzea, enpresak harremanetan jartzea elkarrekin, lur industrialak garatzea, zentro teknologikoekin harremanetan jartzea, merkataritza txikiari laguntzea, baserritarak, turismoa... baina industria da gakoa. Berebiziko garrantzia du formazioak,

komunikabideak garatzea (azpiegiturak nahiz garraioko zerbitzu publikoak) eta kooperatibismoan sakontzea. Ondo hausnartu behar da, eredu baten porrotaren aurrean gaude, eredu berri baten oinarriak jarri behar ditugu, tamalez jarri gabe daudelako.

“Sustapen ekonomikora 700.000 euro bideratuko dizkiogu.”

Bailarako ikuspegitik abiatutako Enplegu Plana ere jarri duzue abian. Zeintzuk dira ildo nagusiak?

30.000 herritar gara bailaran, eta diagnostiko batetik abiatuta egin dugu Enplegu Plana baina ekintza konkretuetara pasatzea lortu dugu, gauzak egiten jartzea. Estrategia sakonena, guretzat epe luzerako estrategia formazioarena da. Perfil batzuetako pertsonen ezagutza batzuk emanda etorkizuna bilatzeko aukera emango zaiela uste dugu. Horregatik, bailaran ematen den hezkuntzaren inguruan hausnartu dugu, batez ere lanbide heziketaren inguruan. Errealitate bati erantzuteko hobekuntza nabarmenak behar dituela uste dugu. Horretaz gain, kontratazio zuzenak egiten ari gara, eta bailara ikuspuntutik, zenbait elementu

elkarrekin lantzeko apustua egin dugu, besteak beste, turismoaren inguruan.


Hondakinen gaia zerresan handia ematen ari da azken hilabeteetan, zein da Azpeitiko Udalaren iritzia kasu honetan?

Polemika eta gatazka sakona sortzen ari den gaia bada ere, guretzat beste maila bateko arazoa da. Birziklatu egin behar da eta honen inguruan bilatu behar da adostasuna maila politiko eta sozialean. Azpeitian ez da ezer inposatuko, guk ez dugu gure gehiengo herriari bizkarra emateko erabiliko, eta puskaketa sortzeko ere ez.

Herritarren parte-hartzeari garrantzi berezia ematen dio Udalak.

Herri oso dinamikoa daukagu, eta horrek aurrera begira laguntza handikoa da, diru gutxiago dago, baina denok elkarrekin, eraginkortasuna biderkatzen dugu. Herritarrekin sinisten dugu, amaiera arte. Hasieratik esan dugu eta koherenteak gara. Azpeitian, edozein gai dela, edozein, eta bai, hondakinen gaian ere bai, 2.500 herritarrek eskatzen badute herri-galdeketa ospatuko da. Horrela, erabaki genuen Udalbatzan guk proposatutako parte-hartze ordenantzan. Ez dugu uste herritarren parte-hartzea soilik 4 urtetan bozkatzean geratu behar denik. Gainera emaitza, Udal Gobernuako kideontzat binkulantea izango da.

arlotako egitasmo berriak



Ingurumena

- Helburu nagusia, hondakinen %70 birziklatzea.
- Auzo-konposta sustatu.
- Herriko lantegietan atez-ateko sistema ezarri.
- Bilketa sistema berria erabaki.
- Eskola berdeak bultzatu.



Hezkuntza eta Euskara

- Herriko ikastetxeekin elkarlana mantendu.
- Hezkuntza zerbitzuen gida argitaratu.
- Ikasleen partaidetza sustatu.
- Belaunaldien arteko harremana indartu.
- Herri euskalduna mantentzea, horretarako, Udala, merkataritza eta lantegietan lanean jarraitu UEMA, Kontseilua eta Elegune zerbitzuen bidez.

Kultura, Gazteria eta Festak

- Kultur taldeekin elkarlana indartu; programazio bateratu eta orekatu eskaini, Udala kultur zikloak mantendu, Sanagustin kulturguneko ekipamendua osatu eta diru-laguntzarako irizpideak adostu.
- Gazte lokalen araudia osatu.
- Herriko gazteen parte-hartzea sustatu.
- Diru gutxiago erabiliz, herritarren parte-hartze gehiago lortu festetan.
- Auzoetako festei garrantzia eman.

Parte-hartzea

- Auzolana bultzatu.
- Talde eta eragileekin arlotako mahiekin jarraitu eta sustatu.
- Aurrekontuak modu parte-hartzailean eratzten jarraitu.
- Auzo alkateen irudiak indartu eta auzo batzordeekin lanean jarraitu. Adibidez, loiola auzoan ere sortu eta garatu.


Gizarte zerbitzuak

- Desjabetze protokoloa egin.
- Udala laguntzak handitu.
- Komunikazioa indartu.
- Eskuhartze psikosoziala indartu.
- Beka sistema abian jarri.
- Etorkinen integratzeko urratsak eman.
- Langabetuentzat baratzak prestatu.

Parekidetasuna

- Berdintasun plana sakondu.
- Hezikidetza proiektua indartu.
- Indarkeria matxistari erantzuna emateko arreta protokoloan pausoak eman; zerbitzuen gida liburuxka argitaratu, Udaltzaingoa formazioa emanik eta talde terapiak antolatuz.
- Emakumeen Txokoa herrira zabaltu.
- Ikasketen homologazioarekin jarraitu.
- Jabetze Eskolak indartu.

HERRIGUNEKO AUZUNEAK



FORU IBILBIDEA

- Gune arriskutsua eta desagokia da oinezkoentzat, autobusak ere larri mugitzen dira gune honetan.
- Astotegia oinezkotuko da eta espaloiak zabaldu.

Aurrekontua: 625.000 euro



ALDE ZAHARRA

- Olazko Amaren Plaza oinezkotu eta komun publikoak jarriko dira.
- Errebal atzeko zelaian aparkalekuak aterako dira.
- Done Jakue kalean, Pilotaleku Txikitik Albergara bitarteko gunea oinezkotu eta parkea eraberrituko da.
- Autoentzat pibote sistema martxan jarriko da.

Aurrekontua: 405.000 euro



ETXEBELTZ

- Umeentzat haur parkea ezartzea.
- Etxebeltz eta Sanjuandegi lotuko duen zubia egitea, hiritartzea eta Loiolabiden aparkalekuak egin.

Aurrekontua: 20.000 euro, haur parkea egitea. Zubia, aparkalekua eta hiritartzea egiteagatik Udalak ez du ezer ordainduko.



SANJUANDEGI

- Jose Antonio Agirre Plaza aurreko errepidea asfaltatzen hasi dira dagoeneko.

Aurrekontua: 45.000 euro

5



SOREASU

- Soreasu auzoko irisgarritasun lanen lehen pausoak eman ziren iaz eta aurtan, bigarren faseari ekingo zaio.

Aurrekontua: 100.000 euro

6



6



JUAN XXIII

- Lasao eta Loiolako bidegorriak lotzeko lanak egin dira.
- Auzoko urbanizazioa hobetzeko aprobetxatu da eta espaloiak berritu dira.

Aurrekontua: 110.000 euro

GARMENDI


- Auzoko espaloiak berritu eta isleta, aparkaleku izan beharrean, berdegune egin.
- Anaia Garatera igotzeko igogailua egiten hasi dira.

Aurrekontua: 290.000 euro

7



8



LOIOLABIDE

- Lur-azpiko aparkalekuetan hezetasun arazoekin amaitzeko, impermeabilizazio lanak egingo dira.
- Loiolabide auzoko urbanizazioa hobetuko da.


Aurrekontua: 160.000 euro.

LANDETA

- Trafiko handiko lekua da eta oinezkoentzat ez dago espalirik, beraz, arriskua ekiditeko espaloia egingo da Lau bidetik Bordatxora arte.

Aurrekontua: 40.000 euro.

HERRIKO AUZOAK



URRESTILLA

- Haur parke berria egin.
- Eliz atariko aparkalekua oinezkotu.

Aurrekontua: 100.000 euro



MATXINBENTA

- Eliza aurreko zorua oinezkotuko da.
- Haur parkea eraberritu.

Aurrekontua: 15.000 euro.



ARATZ-ERREKA

- Haur parkea egitea pilotaleku aurreko gunean.
- Eliza aurreko zorua berritu.

Aurrekontua: 60.000 euro



LASAO. Auzo lokala

- Auzotarrak bildu ahal izateko, auzo lokala egitea.

Aurrekontua: 30.000 euro

asteburumusikalak

2013 maiatzaekainauztaila

MAIATZA

4, larunbata

REGGAE GAUA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 23:00etan

11, larunbata

UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 19:00etan

25, larunbata

BANDA GAZTEA ETA MUSIKA

ESKOLAKO TXISTULARIEN

KONTZERTUA

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 19:00etan

26, igandea

BANDA GAZTEA

Lekua: Nuarbe

Ordua: 13:00etan

29, asteazkena

KONTZERTU AKUSTIKOA

Lekua: Sanjuandegiko Rochas
taberna ingurua

Ordua: 21:30ean

EKAINA

1, larunbata

UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Lekua: Sanjuandegi

Ordua: 12:30ean

7, ostirala

KITARRA POTEOA

Lekua: Kaleetan zehar

Ordua: 19:00etan

MUSIKA ESKOLAREN EMANALDIA

Lekua: Kaleetan zehar

Ordua: 19:00etan

8, larunbata

KULTUR TALDEEN EMANALDIA

Lekua: Plazan eta kaleetan zehar

Ordua: Arratsaldez

9, igandea

MUSIKA ESKOLEN BILKURA

Lekua: Herriko kaleetan

Ordua: 11:00etan

19, asteazkena

MUSIKA ESKOLAKO JAIALDIA

Lekua: Soreasu antzokia

Ordua: 19:30ean

21, ostirala

IRAURGI IKASTETXEKO

ABESBATZAK

X. URTEURRENA

Lekua: Soreasu antzokia

Ordua: 19:30ean

23, igandea

IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA

Lekua: Azpeitiko kaleetan

Ordua: 19:30ean

24, astelehena

UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

Lekua: Urrestilla

Ordua: 11:00etan eta 12:30ean

UZTAILA

Data zehaztu gabe

IMUNTZO ETA BELOKI ETA AERRE

TEATROA "ON KIXOTE"

